

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Makinak, pixkanaka, hurbiltzen ari zaizkigu

AEBETAN BADAGO oso telebista-lehiaketa ospetsua, *Jeopardy* izenekoa ("arriskuan" litzateke euskaraz). Jokoa hainbat datu ematen dira eta parte hartzaileek datu horien oinarrian dagoena edota datu horiek adierazten dutena asmatu behar dute. Asmatzeaz edo ez asmatzeaz gain, lehiakideek erantzuna emateko garaian duten segurtasuna ere kontuan hartzen da.



INTERACTIVE.WXXI.ORG

Brad Rutter izan da lehiaketaren historian diru gehien irabazi duena, guztira 3,2 milioi dolar, eta Ken Jennings izan da programa segida handiengan irabazle gisa iraun duena; Jenningsek 2,5 milioi dolar eskuratu zituen. Berriki, biek parte hartu dute *Jeopardy*ren saio batean lehiakide "berezi" batekin: Watson IBMren superordenagailua. Eta nork irabazi du? Bai, irakurle, Watson ordenagailua izan da irabazlea.

Orain arte, tankera honetako jokoetan ordenagailuak eta pertsonak aurrez aurre jarri direnean, beti gizakiak irabazi izan du, eta erraz gainera. Oraingoan ez da hala gertatu; horrek erakusten digu inteligentzia artifizialaren alorrean egindako aurrerapena norainokoa den. Pertsonen eta makinaren arteko aldea gero eta txikiagoa dela dirudi.

Apoximia: landare bikiak

IKERKETA AGRONOMIKORAKO FRANTZIAKO INSTITUTUKO (INRA) ikerlariak lehen aldiz lortu dute apoximia landare sexualetan. Landare sexualetan erraza da apoximia gertatzea, hau da, landare baten ondorengok jatorrizko landarearen geneen klonak izatea; baina landare sexualetan, polinizazioa gertatzen denez, jatorrizko landarearen ezaugarri batzuk baino ez dira transmititzen.

Science aldizkarian argitara emandako artikuluan, landare sexualetan apoximia aplikatzeko bidea erakutsi dute ikerlariak. Aurkikuntzak oso ondorio garrantzitsuak izan ditzake nekazaritzaren alorrean, batez ere, genetikoki oso onak diren landareak hautatu baitaitezke eta horiengandik sortutako landareek gurasoen geneak mantendu baititzakete.



WWW.ARTEYFOTOGRAFIA.COM.AR

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Bizitza hobetzen duen mutazioa

Jaime Aguirre-Guevara medikuak oso populazio berezia topatu du Ekuadorren. Gorputzez gutxi hazten dira, baina diabetes eta kantzerraren aurkako geneak garatzen dituzte. Antza, isolamenduak badu zerikusia ezaugarri genetiko horiei eustearekin.
<http://ttiki.com/23788> (Frantsesez)

Loak laguntzen du gauzak memorian gordetzen

Etxean batzuk entzun izan dugu azterketak egin aurretik ona zela ongi lo egitea, aztergaiak aurrez ongi ikasiz gero noski. *Journal of Neuroscience* aldizkarian argitara eman den artikulua batek ikasle garaian etxean esaten ziguten hura zuzena dela frogatzen du.
<http://ttiki.com/23789> (Frantsesez)

Lurrikaren detekzioa hobetu nahian

Turkiako Izmit herrian izugarriko lurrikara gertatu zen 1999. urtean: 40.000 pertsonatik gora hil ziren. Orduko hartan zientzialariek bildu zituzten datuei esker, aurrerapauso nabarmenak egin litezke orain lurrikaren prebentzioan.
<http://ttiki.com/23792> (Frantsesez)